

VITORIA-GASTEIZ HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA



SANTA MARIA Katedrala

DLH



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

i b i l b i d e a

2008ko urtarrila

egilea:

Udaleko Hezkuntza Saila

diseinua:

Javi Roa

argazkiak:

Ismael García/Arkeologiaren Arkitekturari buruzko ikerketa taldea (UPV-EHU). Orr: 9,10/1., 11, 12, 16, 17, 18, 22/2., 23, 24/1.

Foto Quintas. orr: 6, 10/2., 14, 15, 24/2.

Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa. Orr: 22/1.

José Ramón Santa María. Orr: 25

Santa Maria Fundazioaren Fondoak

maketak:

Víctor Sanz Yrazu

marrazkiak:

Ismael García/Arkeologiaren Arkitekturari buruzko ikerketa taldea (UPV-EHU)

testuak eta ariketak:

Ismael García/Arkeologiaren Arkitekturari buruzko ikerketa taldea (UPV-EHU)

argitaldaria:

Vitoria-Gasteizko Udala - Udaleko Hezkuntza Saila

inprimatzailea:

Imprenta SACAL

euskaratzea:

AIXE, S.L.

lege gordailua:


VI-345/07

SANTA MARIA

Katedrala

Orrialdea:

1. Aurkezpena	5
2. Gasteizko lehenengo herria: etxeak zurezkoak zirenean	6
3. Lehenengo bilakaera: harriaren erabilera	8
4. Gasteiz harresitu egiten dute, eta lehenengo Santa Maria tenplua eraikitzen dute	9
5. Forua eta izen aldaketa: Gasteiz izatetik, Victoria izatera	12
6. Santa Maria tenplu berria eraikitzen hasten dira	14
7. Elizpea eraikitzea	17
8. Santa Maria katedrala: eraikin gaixoa, sendatzeko bidean	22
9. Bibliografia	26



istoria eta Arte Ibilbideak programan parte hartzean, zeure hiria hobeto ezagutzeko aukera izango duzu: sorrera, bilakaera, eta gizartearen, ekonomiaren, hirigintzaren nahiz artearen aldetik historiako aldi bakoitzean izan dituen ezaugarriak, egungo ezaugarriekin alderatuta.

Hiria hobeto ezagututa, gehiago estimatuko duzu, zaintzen ahaleginduko zara, eta hiriak eskaintzen dizkizun zerbitzuak era egokian erabili ahal izango dituzu.

1. AURKEZPENA

Koaderno txiki hau irakurtzen hasi bazara, Santa Maria katedrala zaharberitzeko lanak orainberriki bisitatu dituzulako izango da. Bisitaldian, xehetasun asko esplikatuko zizuten, eta beharbada haietako baten batzuk ahaztuak izango dituzu honezkero. Horregatik, koaderno honekin proposatzen dizugu berriz bizi dezazula bisita hura, gogoratzea komeni zaizuna berritze aldera. Irudi piloa izango duzu, lagungarri. Zenbait ariketa ere proposatuko dizkizugu, zure gaitasunak trebatzeko.

Hasteko, denboran atzera eginez bidaiatuko dugu...

2. GASTEIZKO LEHENENGO HERRIA: ETXEAK ZUREZKOAK ZIRENEAN

Duela 1.200 urte baino gehiago, Vitoria-Gasteiz **oso herrixka txikia** zen, eta oraindik ez zuen Vitoria izena hartu. Orduko hartan, **Gasteiz** zuen izena. Herriak oso bizilagun gutxi zuen, eta oso etxola xumeetan bizi ziren.

Herritarrek **ez zuten harria erabiltzen etxeak eraikitzeko**, baizik eta errazago eskura zitezkeen beste material batzuk: zuhaitzak mozten zituzten inguruko basoetan, enborrak lortzeko. Enbor horiek zoruan finkatzen zituzten, etxolaren oinarrizko egitura eratzeko. Gero, hormak egiten zituzten, buztinarekin. Eta, azkenik, lastozko estalkia jartzen zioten.

Eraikitzeko modu lasterra eta merkea zen, baina bazituen eragozpenak ere. Haizearen eta euriaren eraginez, eta temperatura aldaketa etengabeek erasanda, etxeak laster hondatzen ziren. Gasteiztarrek, beraz, etenik gabe aritu behar zuten etxea konpontzen.



Irudi honetan ikus dezakezu nolakoa zen antzinako Gasteiz hartako etxoletako bat. BILATU ETA KOLOREZTATU:

- *Aurki itzazu oinarrizko egitura eratzen zuten zurezko zutoinak, eta kolorezta itzazu marroi ilunez.*
- *Identifika itzazu adarrekin eta buztinarekin egiten zituzten hormak. Kolorezta itzazu laranjaz.*
- *Azkenik, bete ezazu kolore horiz lastozko estalkia.*



3. LEHENENGO BILAKAERA: HARRIAREN ERABILERA

Duela gutxi gorabehera 1.000 urte, Gasteiz herrixka pixkanaka hazten ari zen, inguruko herrietatik zetorren jendearekin. Hala ere, herri txikia zen, muinoaren gorenean. Gasteizko biztanleek, artean, zura eta buztina erabiltzen zituzten, etxeak egiteko.

Hala ere, denbora puska bat igarotakoan, konturatu ziren **harrizko oinarria** jartzen baldin bazioten enborren egiturari, zutoinak ez zirela hain erraz hondatzen. Orduz geroztik, eraikinetako asko halaxe egin zituzten.



Irudian, harrizko oinarria zuten etxola haietako bat duzu:

- *Kolorezta ezazu urdin argiz, harrizko oinarria.*
- *Orain, aurki itzazu oinarrizko egitura eratzen zuten zurezko zutoinak, eta kolorezta itzazu marroiz.*
- *Bete itzazu kolore horiz hormak.*
- *Azkenik, margo ezazu laranja teilatua.*
- *Ikusten al duzu zernolako aldeak dituen etxola honek, aurreko etxola motaren aldean?*

Beste alde batetik, landako produktuak ekarri eta eraman behar zituztenez, idiek mugiarazitako gurdi astunen zirkulazioak zuloak eragin zituen herrixkako bideetan, lurrezkoak baitziren. Orduan, Gasteizko bizilagunek pentsatu zuten arazoari irtenbidea emateko modua zela **harrizko lauzak** erabiltzea, kale zati batzuk zolatzeko. Eta halaxe egin zuten.

4. GASTEIZ HARRESITU EGITEN DUTE, ETA LEHENENGO SANTA MARIA TENPLUA ERAIKITZEN DUTE

Duela 900 urte, hor nonbait, tokiko noble talde batek erabaki zuen **harresi handia eraikitzea, kokalekuko etxolen inguruan**. Nekazari herri hura hiriburu garrantzitsu bihurtu nahi zuten. Horretarako, lehendabizi etxeak ondo babestu behar zituzten.

Herrixkako bizilagunetako asko, lanean aritu zen, hainbat urtez, harresiko lanetan. Hala ere, ez ziren aski, eta ez zituzten halako eraikuntzak egiteko behar diren jakintzak. Beraz, kanpotik etorritako adituengana jo zuten. Gainera, etxolak eraikitzekeo erabilitako harria baino askoz gehiago behar zuten. Horrenbestez, **hainbat harrobi ireki zuten, hurbileko mendietan**.



IKUS itzazu harresiaren hondarrak (orain ikus dezakezuna, katedrala eraiki eta gero babes esparruan geratu diren hondarrak baizik ez dira):

- *Oso gutxi geratzen diren arren, harrizko bloke handi handiekin eginga zela ikus dezakezu. Imajina ezazu zenbat kostatuko zitzaien harrobietatik horraino eramatea, gurdiz gurdi.*
- *Ondo erreparatzen badiozu, konturatuko zara oso horma lodia zela, metro eta erdi baino gehiago zabal.*
- *Izkinetan, dorreak zituen, egitura indartzeko. Nabarituko duzu dorre haietako baten hondarrek iraun dutela.*




ERANTZUN:

- *Gasteizko Alde Zaharreko tokiren batean ikusi al dituzu antzinako harresiaren beste zati batzuk? Non?*
- *Ezagutzen dituzu beste hiri edo herri bartzuetako harresiak? Nongoak?*

Gasteizko harresiak, Eskoriatza-Eskibel jauregiaren ondoan

Harresia bukatu eta geroxeago, Santa Mariari eskainitako beste tenplu bat eraikitzen hasi ziren. Eraikin hori, eliza izateaz gainera, gotorleku ere izango zen, herriak iparraldeko sarrera babesteko. Horregatik, horma gogor eta sendoak jarri zizkioten. Hartara, etsaien erasoei eutsiko zien, gerrateetan.



BEGIRA iezaiozu Santa Maria katedralaren planoari, orain den bezalaxe.

- *Planoaren gainean, lot itzazu zenbaki beltzarekin markatutako puntuak: egizu lerro bat puntu horiek guztiak batzeko, 1 zenbakitik hasita, azkeneraino. Bukatutakoan, ikusiko duzu nondik nora zihoan harresia, katedrala eraiki baino lehen. Kolorezta ezazu gorritz.*
- *Planoaren gainean, lot itzazu zenbaki gorriekin markatutako puntuak. Bukatutakoan, ikusiko duzu hasierako Santa Maria elizaren oinplanoa zein zen. Kolorezta ezazu urdinez.*

5. FORUA ETA IZEN ALDAKETA: GASTEIZ IZATETIK, VICTORIA IZATERA

Duela 800 urte baino gehiago, 1181ean, Nafarroako errege **Antso VI.a Jakitunak** Gasteiz harresitu hura hiri garrantzitsu bihurtu zuen, eta izen berria jarri zion: **Victoria**. Aldi berean, erregeak hango biztanleei legeak eman zizkien, gobernatzeko. Lege haiek **foru izeneko dokumentu** batean jasota geratu ziren.



*Enrique Suarez Albak eginiko murala.
Nafarroako Antso VI.a irudikatzen du*

Antsok erabaki zuen hiriaren babesak are gehiago hobetzea. Horregatik, lehendabizi gaztelu bat eraikiarazi zuen, antzinako San Bizente elizaren gainean. Gero, Santa Maria parrokia gotor zezatela agindu zuen.

San Bizente eliza

Imajina dezagun zu Antso Jakituna zarela, eta lehenengo aldiz heldu zarela Gasteiz herrixkara. Herria nolakoa zen ondo ikusi nahiko bazenu, jatorrizko Santa Maria elizaren dorrera igoko zinateke. Baina zer ikusiko zenukeen handik? Orain zuk ezagutzen dituzun Gasteizko alde zaharreko kaleak. Oraindik ere herrixka txiki hartakoen antzekoak dira. Dena dela, bada aldatu den zer edo zer:

Aldatu dena:

- Orain, harrizko edo adreiluzko eraikin asko dago. Hasierako garaietan, ordea, ia etxe guztiak zurezkoak eta adobezkoak ziren, ikusi dugunez. Harria, gogorrik izan behar zuten eraikinetarako baizik ez zen erabiltzen; edo elizetarako, hala nola Santa Maria elizarako, oso garrantzitsuak baitziren komunitate osorako.


la berdin dagoena:

- Gainerakoen gaineratik nabarmentzen diren bi eraikin: hegoaldean, San Bizente eliza; eta iparraldean, Santa Maria eliza.
- Hiru dira bi eraikuntza horiek lotzen dituzten kale nagusiak.
- Azkenik, harresiek inguratzen dute guztia.

KOLOREZTA itzazu planoan:

- Harresia, laranja.
- Santa Maria eliza, horiz.
- Santa Bizente eliza, urdinez.
- Etxeak, berdez.
- Kaleak eta plazak, horiz.

LAUKIETAN (A, B eta C), idatzi ezazu planoan ageri diren kaleen izena.



6. SANTA MARIA TENPLU BERRIA ERAIKITZEN HASTEN DIRA.

Duela 700 urte baino gehixeago, 1200. urtearen inguruan, **hasierako Santa Maria tenplua suntsitu zen**. Gaztelako Alfontso VIII.aren armadak hiria setiatu zuenean gertatu zen. Armada hark, azkenean, hiriaz jabetzea lortu zuen. Gerorako, agintari berriek erabaki zuten ezen, tenplua berriz eraikitzeko, hobe zela **are handiagoa izango zen tenplu berri bat egitea**.



Harresien kanpoaldetik hasi zituzten lanak. Hala ere, eraikitzaileek bazekiten jarduera luzea eta neketsua izango zela, eta hainbat belaunaldi beharko zituztela burutzeko. Horregatik, **eliza zaharraren zati bat berreraiki zuten, proiektu berria bukatzen zen bitartean kulturako erabiltzeko**.


Halaxe izan ziren berrogeita hamar bat urtez. Harresitik at, aldamiok, garabiak, harginak eta zurginak. Barruan, hasierako eliza berriztatua, eliztarren eta gremio koadrilén erlijio beharrei erantzuten. Gremio koadrila haiek, beste toki batzuetatik Gasteiza etorrira, bizigaia eskuratzen saiatzen ziren, proiektu berriaren gerizpean.

Lanek martxa onean egin zuten aurrera.(1) Baina, behin une batetik aurrera langileek hiriaren esparruaren barruan lan egiten hasi behar izan zuten. Izan ere, kanpoaldean egiten ari ziren eraikuntza berria ia bukatuta zegoen. Orduantxe eraitsi zuten hormaren zati bat,(2) beharrezkoa baitzen, barruan egiteke zegoena osatu ahal izateko.



BEHA iezaiozu argazkiari:

- Barrualdeko espazioa oso handia da.
- Zutabe lodiek sabaiari gorago eusteko balio dute.
- Badira hainbat forma eta tamainatako leihateak. Guztiek dituzte beirateak (leihatzen barruan kristal koloreztatuekin eratuta dauden “puzzleak”).



Eliza berria, aurrekoa baino eraikin zabalagoa zen. Izan ere, hiriak gero eta biztanle gehiago zuenez, toki handiagoa behar zen guztiak barruan hartzeko. Garaia ere bazen; horrela, zeruetako erresumatik hurbilago zegoela adierazi nahi zuen. Eta argitasun handiagoa zuen, hormetan ireki zizkieten leihate handiei esker.

Horiek dira gotiko estiloko ezaugarri batzuk, Europan garai hartan estilo nagusia.

Eraikitzen bukatutakoan, Santa Maria tenplu berria erlijiozko toki gisa erabili zuten, batik bat. Hara joaten ziren Victoriako biztanleak otoitz egitera, ezteiak ospatzera, semealabak bataiatzera eta familiartekoak lurperatzea (gezurra badirudi ere, **eraikinaren barrualdea hilerri gisa erabiltzen zuten**; horregatik aurkitu dute arkeologoek hainbeste eskeleto, zoruaren azpian).


Hala ere, Santa Maria gotorlekutzat erabiltzen jarraitu zuten. Errondako igarobide delakora igotzen baldin bazara, zentinelek hiriko harresiak zaintzen zituztenean paseatzeko erabiltzen zuten korridorea ikusiko duzu. Handik, ingurumarietan gertatzen zen guztia kontrolatzen zuten. Katedrala eraiki zutenean, orain hortik ikus daitekeen ezertxo ere ez zegoen, ia. Urruneko mendiak, landa eta ingurumarietako herriak (elizetako dorreak eta guzti) besterik ez zen ageri.



7. ELIZPEA ERAIKITZEA

Duela 600 urte baino gehixeago kontratatu zituzten katedraleko elizpea egin zuten eskultoreak. Elizpe horrek hiru portada ditu: nagusia, erdian; eta beste bi, alboetan. Horietako bakoitzak ate bat du.(1) Eta, atearen gainean, gutxi gorabehera triangelu formakoa den espazio bat dago, **tinpano** izeneko, (2) erliebeekin zizelkatutako hainbat zerrendaz osatua. (3) Erliebe horiek, komikiak izango balira bezala, hainbat istorio kontatzen digute.

Erdi Aroan, jende gehienak ez zekien irakurtzen, eta apenas zekiten latinez ere (latina erabiltzen zuten apaizek, meza emateko). Horregatik, gehienek, santuen bizitza eta Bibliako istorioak ezagutzeko, **irudiei begiratzea** zuten bide bakarra.




Santa Mariako elizpea diseinatu zutenak, gogotik ahalegindu ziren tinpanoetan kontatutako istorioak erraz uler zitezen. Oro har, Europako eskultore guztiek **irudien kode berbera** erabiltzen zuten. Hartara, eskultura bakoitzak nor irudikatzen zuen, inor ez nahasteko moduan ager zedin, objektu berezi bat jartzen zioten. Jendeak bazekien objektu hori pertsonaia jakin batek beste inork ezin zuela izan. Irudian, Salomon ageri da.(1) Batez ere bizar luzeengatik eta koroarengatik da ezaguna. Ondoan, Santa Katalina,(2) gurdi gurpil batekin, horixe baita haren ezaugarri.(3)



BILATU ETA KOLOREZTATU:

Hurrengo orrialdeetan Katedraleko elizpeko hiru portaleetako tinpanoetako marrazkiak agertzen dira. Lehenengoa (A), elizpearen ezker aldean, Gil santuaren tinpanoa da. Han, behetik gora irakurtzen dela, santuaren bizitza ikus dezakegu. Erdialdekoa (B) da Santa Mariarena; hor, jakina, Andre Mariaren bizitza irudikatzen da. Azkenik, eskuinekoa (C) azken judizioarena da: Jainko epailea, gorenean, zeruetara nor iritsiko den eta nor ez erabakitzen. Begira iezaeizu arretaz, eta aurki itzazu hiru eszena hauek:


- Kolorezta ezazu gorritz, harginak monasterioa eraikitzen erakusten dizkigun eszena.
- Kolorezta ezazu urdinez, Jainkoa Andre Maria koroatzen erakusten digun eszena.
- Bila ezazu bekatarien gorputzak jaten dituen munstroaren buru handia, eta kolorezta ezazu berdez.



(A)



(B)



(c)



8. SANTA MARIA KATEDRALA: ERAIKIN GAI-XOA, SENDATZEKO BIDEAN

Santa Maria katedrala, Katedral Zaharra deritzoguna, oso urtetsua da. Eraiki zutenetik igaro den denbora honetan guztian, **gauza asko aldatu dizkiote**. Aldi batzuetan, falta zitzaizkiola uste zuten gauzak erantsi zizkioten. Beste batzuetan, kendu egin zizkioten, sobera zituela pentsatuz. Hainbeste aldaketek kalte egin diote eraikinari.

Adibidez, duela 500 urte **kendu egin zioten lehenago zuen sabaia (zurezkoa) eta haren ordeztu harrizko gangazko sabaia jarri zioten**. Hasieran, arkitektoek uste izan zuten eraikinak aldaketari eutsiko ziola. Denbora igaro ahala, ordea, harriak duen pisu handiagoak ahuldu egin ditu euskarritzat dituen zutabe eta hormak.



Beste kasu bat, kaperena dugu: antzinako hainbat noblek toki berezian ehortz zitatzela nahi zuten, katedralaren barruan, eta eurentzako kaperak eraikiarazi zituzten. Kaperak, elizari atxikitako eraikin txikiak ziren. Haietara sartzeko, sarbidea egiten zuten, tenpluaren hormak zulatuta. Hormetako zulo horiek kalte larria egin zioten katedralaren egiturari.



Irudi honetan, atzealdean, kapera baten berregite ideala ageri da, hilaren eskultura barruan duela

BEGIRA iezaiozu argazki honi:

- Katedralaren barrualdea metalezko egiturez beteta dago. Hornei eta zutabeei eusteko balio dute egitura horiek.
- Horma batzuk ez dira zuzenak, badirudi barrualdera erorita daudela.
- Arku batzuk deformatuta daude.
- Bisitaldian, ikusi al duzu hormetan irekitako arrailetakoren bat?

Gasteiztarrok katedrala asko erabili izan dugun arren, ez gara beti nahikoa arduratu katedralaren osasunaz. Ez gara katedrala ezagutzeaz arduratu. XIX. eta XX. mendeetan, hirian erlijiorako beste eraikin batzuk egitearekin batera (konparazio batera, Katedral Berria), Santa Maria katedral zaharra bazterrean utzi zuten, pixkanaka. Halaxe heldu zen, gaixorik eta ahazturik, gure egunetara.



Gasteizko Katedral Berria



Zorionez, duela zenbait urtetik hona, gasteiztarrek katedralaz gehiago arduratzen hasi dira. **Zientzialari asko ari dira eraikina oneratzeko lanean.** Aurrenik, zehatzmehatz ikertu dute, zer gaixotasun nozitzen duen zehatz jakiteko asmoz. Bildutako informazio guztiarekin, jarduketa plan bat ezarri dute: **Santa Maria Katedrala Zaharbertitzeko Plan Zuzentzailea.**

PENTSATU ETA ERANTZUN:

- Zer ideia bururatzen zaizkizu, jendeak Santa Maria katedrala hobeto ezagut dezan?
- Eta duen gaixotasunetik onera dadin eta kalte gehiagorik izan ez dezan?



Ezarri den planari jarraituz, katedrallean jende asko ari da lanean: zientzialariak (hala nola topografoak, arkitektoak, arkeologoak, zaharbertitzaileak, informatikariak...), igeltseroak, administrariak, eta giden taldea. Gidak arduratzen dira eraikina erakustez, zu bezala katedrala ezagutzearren bisitan etortzen diren guztiei.

Tira, bada. Dagoeneko heldu gara Santa Maria katedralari egin diogun bisitaldi birtualaren azkenera. Ez pentsa, hala ere, honekin guztia bukatu denik. Oraindik ere lan asko dugu egiteko, gure “gaixoa” erabat oneratzea lortzeko. Eta, horretarako, zure laguntza ere behar dugu. Espero dugu berriz ere ikusiko zaitugula hemendik (beharbada, zure adiskideekin edo familiarekin batera). Eta, badakizu: orain ere, katedrala... **“Obretan eta irekita”**.

Langileak, Santa Maria katedralaren barruan aldamiotako bat muntatzen

9 BIBLIOGRAFIA

Azkarate, A.; Lasagabaster, J.I.; Latorre, P. *Catedral de Santa María. Plan Director de Restauración*. Vitoria-Gasteiz: Santa Maria Katedrala Fundazioa, 2001.

Azkarate, A; Solaun, J.L. Después del Imperio Romano y antes del año mil: morfología urbana, técnicas constructivas y producciones cerámicas, *Arqueología de la Arquitectura*, 2, orr. 37-46. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Arkeologiaren Arkitekturari
buruzko ikerketa taldea

Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea